

Donostian, Diputazioan, bildu dira: I. M.^a Etxaide jauna, buru, Mitxelena, Lojendio, Irigaray, Villasante eta Lekuona jaun euskaltzainak. Loidi, Etxaniz, Zabalza eta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

“Auspoa”-k karta bat bialdu dau egin geuntsanari erantzunez. Diñoe alegiñean ari direala suskriizioak egiten finkatu daben mailla batera eldu arte. Euskaltzaindia suskribitu bedi sei ale artzeko.

“National Science Développement Board”-ek Manila-tik karta bat zuzendu deusku. **Euskera** euren aldizkari *Science Review*-en truke artu gura dabe. Ontzat artzen da truke ori egitea.

Lizardi poesia sarira ainbat lan etorri dira. Juradu bat izentau da erabagi daian ze lani emon saria: Manuel Lekuona, Luis Mitxelena eta Antonio Arrue jaunak osotuten dabe. Zarautzen emon bear da Garagarrillaren 17-an Lizardi-ren gorazarrez egiteko direan jaietan.

Aurtengo bertsolarien txapelketen gaiñean berba egin da. Bizkaian igazko moduan egingo dira. Nafarroan be bai. Gipuzkoakoak egiteko sei zatitan partidu da lurraldea: Deva, Vergara, Azpeitia, Oyarzun, Villafranca eta Tolosa. Toki erreitan txapeldun gelditzen direanen eta 1959 urtean Gipuzkoako txapelketa nagusian Eibarren parte artu ebenen artean —Uztapide kenduta Euskalerriko bigarrena dalako eta Euskalerrri osoko txapelketan parte artu leielako Gipuzkoakoan aritu barik— jokatu bedi azken txapelketa nagusiaren aurrekoa eta gelditzen direanakaz nagusia. Abenduan egin bedi Donostian Euskalerrriko azken txapelketa nagusia Nafarroako, mugaz goialdeko, Bizkaiko eta Gipuzkoako ordezkariakaz eta aal bada sartu beitez arabarrek be. Tratatu bedi aipatutako Gipuzkoako Ayuntamentuakaz txapelketak erriko jaien barruan sartu eta sariak emon daiezan: kopea eta dirua.

Egin bediz Bilbon aurtengo Bizkaiko neska mutillen arteko euskal esamiñak.

Beste barik oin dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

I. M.^a Etxaide

L. Mitxelena